

Fermin Erbiti Zabalza

KAZETARIA ♦



JOSU SANTESTEBAN

## Javier Ciga: euskal baserritarrak artearen historian sartu zituen artista

DUELA EHUN URTE, iruindar gazte batek munduko arte erakusketa ospetsuenean parte-hartzea lortu zuen: Parisko Grand Salonen, hain zuzen. Javier Ciga zen gazte hura, eta *Elizondoko Merkatua* saritutako obra, lehiaketan *Paysans Basques* izenaz aurkeztua.

Koadro hori, eta Parisko egonaldian eginiko beste hogeitik gora, ikusgai daude Iruñeko Kondestablearen jauregian, Ciga Fundazioak eta Udalak antolatutako erakusketan. Inpresionismo kutsua darien Senako paisaiez gain, artistak sekula ahortzi ez zituen Euskal Herriko jende eta parajeak ikus ditzakegu... eta Eulalia emaztearen erretratu ederra, ondorengo izanagatik alaba Gurutzek ekarrarazia: “Ama ekartzen ez badute, alaba ere ez doa inaugurazio ekitaldira”.

Ciga Nicolas Urdampilleta *amerikanoari* esker joana zen Parisera. 1909an ezagutu zuten elkar, iruinsenak Sanferminetako kartel lehiaketa irabazi zuelarik. Entzierroaren irudi ederra ikustean, haren babesle bihurtzea erabaki zuen.

Munduko lehen gerra piztean, ordea, Cigak etxera bueltatu behar izan zuen. A ze aldaketa artista baten-dako!: utzi munduko artearen hiriburua harresiz inguraturiko Iruñera itzultzeko. Irakurtzekoak dira, eta

barregarriak, garaiko kazetari batzuen esanak Cigaren etorrera iragarritik. *El Pensamiento Navarro*rena lekuko: “Egun batean bere herrira etorri zen, Euskal Herriaren ama den Nafarroara, eta orduan argi ikusi zuen askoz erakargarriagoa zitzaiola bohemian baino”.

Ez zen hura pintoreak markatu zuen gerra bakarra, Espainiakoak zauri larriagoa utzi baitzion. PNVko kidea, Ciga Iruñeko zinegotzia izana zen hogeiko hamarkadan, bitan. (Udaleko ordezkariak ahortzi egin zuten datua gaztelania hutsezko hitzalditxoetan). Kontua da 1937an atxilotu, torturatu eta ondasun guztiak kendu zizkiotela. Kartzelatik atera, eta adiskide zuen Jose Arruek bezala egin zezakeen: “Bi urtez kartzelan eta orain kalera, goian zerua eta behean lurra. Dena desagertu da, nire obra barne. Pikutara artea, kritikoak eta erakusketak”. Cigak, ordea, aitzina egin zuen, agian beste auke-

rarik ez zuelako. Geroztik, maisuen maisu eta erretratu-egile ospetsu bihurturik bizi izan zen, 1960an zendu zen arte. Iruñetik atera gabe, baina Parisko oroitzapenak gogoan, batez ere duela 100 urtekoa: biziki maite zituen Baztango baserri-rar xume haiek, artearen historian sartuko zirela jakin zuenekoak. ■

Munduko lehen gerra piztean, ordea, Cigak etxera bueltatu behar izan zuen. A ze aldaketa artista baten-dako!



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

## Maitasun giltzarrapoak

SEKULA EZ DUT SOBERA maite izan espresio ezagun hori: “Hobe irudi bat mila hitz baino”. Oraingoan, baina, amore eman beharko dut, nonbait. Izan ere, hotzikara eragin dit Dublingo *Ha'penny Bridge* gurutzatzean bertan ikusitako eszena groteskoak. Jakin dudanez, 300 kilo metal baino gehiago kendu zituen Dublingo Udalak iaz zubi horretatik; hala ere, katez jantzi dute berriz maiteminarene gaitza pairatzen dutenek, giltzarrapoz. *Love lockak* ez omen dira nerabeen kontu hutsa bakarrik.

Groteskoa iruditzen zait, bai, Europa eta munduan barrena azken urteotan

zabaldua den moda *erromantikoa*. Kazetari-ri hiztegia ebaste jarraitze alde, danteskoa ere esango nuke. Nire estetikak ezer gutxi balio du eta, beraz, kapitalismo teknologikoak bizi duen jendarte bizi du, halaber, erromantizismorik atzerakoenak: maite zaitudalako lotu nahi zaitut kate motzean, neure burua bezalaxe. Patuak ezinbestean kateatuak gara, laztana.

Aitor dut: mila karaktere pasatuko hitz sorta honek nekez adieraziko du hobeki maitasun giltzarrapoen horrorea. ■

